

AITOR MARCILLA 'MARSEL' (MAGOA)

“Magoak jendearen atentzioa nahi duen tokira bideratzen jakin behar du”

■ Aita mago izana du; berarekin ikasi zuen txikitik ■ Afizionaturen bat kenduta Hernaniko mago bakarra da ■ Gipuzkoan 25 mago omen daude ■ Kontakturako 943-552273.



Aitor 'Marsel' en paperean, tripatik haria ateratzen.

Aitor Marcilla da Hernaniko magoa. Etxeberrin bizi da eta 26 urte ditu. Ostegunean Aralar tabernan aktuatzen duen; bihar Floridako festetan arituko da.

■ **KRONIKA:** Nondik nora sartu zinen majia munduan?

AITOR: Aita magoa izaki txikitatik ikusi izan dut. 12 urte igururekin sartu zitzaidan ikasteko gogo eta aitak poliki-poliki asko erakutsi zidan; orain nik erakusten diot berari ■ **Eta Marsel izena nondik dator?**

Aitak erabiltzen zuen eta orain nik hartu dut. Bere izen-abizenetako hizkiak hartuta osatutako izena da. Ondo etorri ohi da izen artistiko bat izatea, artista eta pertsona berreizteko balio baitu.

■ **Non dago majiaren sekretua?**

Jendearen burmuina engainatu behar da. Jendearen atentzioa desbideratu edo nahi dugun aldera bideratzeko mekanismoak ikasten ditugu, trukoa inor jabetu gabe egiteko eta

'MARSEL':
“Magia ikasi nahi duenak beharrezkoa du dakienaren laguntza, nondiko jo erakusteko”

ikustea nahi dugunari indarra emateko. Jendea teoria ondo aplikatuak engainatzen du, ez trukoa berak.

■ **Bizitzeko adina ematen al du?**

Bizitzetik bizitzera aldea dago baina aurrera jarraitzeko lain eman lezake. Zailena ezagutzera ematea da. Gero gustoko aktuazioak eta jaten ematen dutenak konbinatu behar dira.

■ **Majia ikasi nahi duen batentzat gomendioak.**

Jarri dadila mago elkartearekin harremanetan. Gipuzkoa mailan XIXA izeneko elkarteak daukagu. Bertan elkartzen gara inguruko magoak iritziak trukatu eta eztabaidatzeko. Ofizioa ikasi nahi dutenentzat ere zabalik daude ateak eta zein bide segi esango diegu. Magia dakien baten laguntzaz ikasi beharrek artea da.

■ **Gehien gustatzen zaizun trukoa?**

Hori bolaraka joaten da eta ez daukat bakar bat. Hori bai, gehien kartekin egiten diren trukoa gustatzen zaizkit.

■ **Jendeari gehien gustatzen zaiona?**

Horrekin sorpresa handiak hartzen ditugu: asko uste eta gustatu ez eta gutxi uste eta asko gustatu. Hala ere gauza espektakularrak gustatzen zaizkio jendeari, tripatik haria ateratzea (argazkikoa)...

■ **Hernanin aktuaziorik?**

Egun hauetan badut bat edo beste, baina ezer gutxi izaten da. Gainera, ez da hain komodoa: jendeak egunero zarena ezagutzen du eta desberdin begiratzen dizute. Arte eszeniko guztiak bezalaxe magiarako ere ez dago aukera gehiegirik, ez hemen eta ez inguruan. Modan jarri artekoa izango da □

Institutuak zabaldu du Formazio Zikloetako matrikula

■ Ekainaren 12 arte da ■ Bi urteko 7 ziklo dira: bi Erdi Mailakoak eta bost Goi Mailakoak.

HERNANI Institutuak atzo zabaldu zuen Formazio Zikloetan matrikulatzeko epea. Formazio Zikloak Lanbide Heziketako bi urteetako kursoak dira.

katuta hasten dira GoiMailako Zikloetan, 18 urterekin. Bi urteko zikloa egitean lanean hasi edo unibertsitatera sar-tzeko aukera dute.

ERDI ETA GOI-MAILAKO FORMAZIO ZIKLOAK

Institutuak Erdi eta Goi-Mailako Formazio Zikloak eskaintzen ditu. Erdi-Mailakoak dira: Mekanizazioa, Ekipoa eta Instalazio Elektroteknikoak. Bi zikloak industrialak dira eta ikasleak DBH bukatuta hasten dira, 16 urterekin.

Goi-Mailako Zikloetan, berriz, bost eskaintza daude: bi industrialak eta 3 zerbitzuetakoak. Industrialak: Proiektu mekanikoen Garapena eta Instalazio Elektroteknikoa. Eta zerbitzuetakoak: Gizarte eta Kultur animazioa, Turismoaren Informazioa eta Merkaturatzea eta Alojamen-dua. Ikasleak Batxilergoa bu-

PRAKTIKETATIK LANERA

Formazio Zikloetan kursoaren % 25a praktikak dira. Patxi Apezetxea zuzendariak dienez, ikasleak praktikak egiten dituzten enpresetan bertan hasten dira lanean. Lanbide Heziketa egindako ia denak kolokatzen dira. Eta Ziklo industrialean, berriz, “doble balude ere denak kolokatuko lirarteke” esan du Apezetxea zuzendariak.

Bestalde, Hernani Institutuak Ingalaterrako enpresetan praktikak egitea eskatu zuen eta onartu da. Beraz, datorren ikasturtetik aurrera, Institutuko zortzi ikasleak Ingalaterran egingo dituzte beren praktika erdiak. □

EREÑTZUKO JAIK

Programak datorren astean banatuko dira

■ Ereñtzuko jaiak direla eta, jai batzordekoak atzo gauean ziren etxe-etxe programak banatzera joatekoak, urteroko ohi-turari eutsiz. Azken orduan, inprenta arazoak izan dira, ordea, eta atzo banatu beharren datorren astean banatuko dira.

Gaur erre eta jango dute Txekorra 'Haragiaren festan'

■ 19:00etan plazan ■ Berriakek antolatua.

Osiñagako festetako mus txapelketa gaur hasiko da

■ Arratsaldeko 16:00etan Harriatsun.

Telemar
ITXASTELE S.L.
Telyco denda
Elkano 13, HERNANI ☎ 943 33 26 00

⇒ 'Telefonica'ko banatzailea
⇒ Movistar
⇒ Zentralitak
⇒ Faxak
⇒ Telefonía mugikorra
⇒ "Via digital", inalanbrikoak,...

ESKEINTZAK:

ordenagailua: Komunitateko berezia
AMD K7 DURON 800 MHZ
SDRAM 128 MBko memoria, 15"ko monitorea, 8 MB 3D ko AGP tarjeta grafikoa, Sound Blaster 129 PCI soinu txartela + Genius Vivid Pro III USB 1200x600 escanerra + (LexMark Z12 1200x1200 Inpresora)

99.900 Pta + %16ko Bez a.

mobilak
ALCATEL
ONE TOUCH
300 - 301 - 302 - 303

14.900 pzta.
(10.000 pzta deietan).

OIALUME BILTOKIA.

EUSKAL GIROA

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
19:30etatik aurrera.

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

Ford **Antziola-Motor**
Zerbitzu Ofiziala

► Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
► Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
► Aseguruen gestioa
► Finantziarioak
► Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

Elkarri Bake Konferentziaren alde firma biltzen arituko da bihar

■ Plaza Berrian jarriko du mahaia 11:00etatik 13:30etara.



Hernaniko Elkarriko kideak, bileran.

ELKARRI Euskal Herrirako Bake Konferentzia antolatzen ari da eta igandean proiektuaren aldeko sinadura bilketa egingo du gizarte mugimenduetan. Elkarri dionez "Sinadura horiekin indar politikoei bake-prozesurako eta elkar-

bizitza politikoaren normalizatzarako akordio bat eskatzen zaie". Horretarako Elkarri zenbait iniziatiba martxan jarri ditu: bake prozesuetan esperientzia duen jendea bildu, nazioarteko sarea antolatu eta, beste gauza batzuekin batera, gizartearen sostengua lortzea. Hor sartzen da firmak biltzearena.

50 LAGUN

Biharko ekimenaz gain, Hernaniko 50 lagun sinadura eske ari dira azken asteotan. Sinadurarekin batera, Bake Konferentziari diruz laguntzeko 1.000 Pta eskatzen dira, baina, hau borondatezkoa da. □

MENDEKOSTE JAIK FLORIDAN

Ume jolasak, tanborrada, rock kontzertuak eta Izotz taldea, gaur

■ Eguerdian landare lehiaketa izango da eta arratsaldean giza-futbolina ■ Rock kontzertua Hernaniko taldeek joko dute: 'Melancholic', 'Demise' eta 'Mixil'.



Buruhandiak maskuriarekin festa jartzen, atzo Florian.

GIRO ederrarekin hasi dituzte aurten Florian Mendekoste jaiak. Trikitilariak alaituta, erraldoi eta buruhandiek umeei korrikaldi ederrak eginarazi zizkieten. Gaur, larunbata, haurren eguna da, baina, adin guztikoentzat dago animazioa. Dianarekin hasi eta Incansables eta Izotz taldearekin bukatuko

EGITARAUA

- 09:00 Diana
- 10:30 Haur jokoak
- 10:00-14:00 Jolas parkea (Kars, puzgarriak)
- 12:30-14:30 Incansables Txaranga
- 13:00 Landare lehiaketa
- 15:30 Tiro saioa
- 15:30-17:30 Giza futbolina
- 16:00 Pailazoak: Kiki, Koko, Moko eta Flax
- 17:30 Haurrentzako merienda
- 18:00 Futbito torneo
- 19:00-20:30 Incansables
- 23:00 Tanborrada
- 23:30 Rock kontzertuak
- 01:30 Incansables

da jai. Aurten txoznetan ere eskaintza berezia egin dute Florian: goizeko 03:00etatik 05:00etara bi katxi baten prezioan. □

UDALA

'Sagastiya'ko konbenioa, Hirigintza komisiara berriz

■ EA-EAJ-k eskatu zuen eta EH onartu, datorren plenoan aprobatazeko konpromisoarekin.

GOBERNU taldeak *Sagastiya*n babes ofizialeko etxebizitzak egiteko konbenio berria aurkeztu zuen, osteguneko plenoan. Proposamena 1999an gai berari buruz aprobatazko konbenioari, aldaketak erantsen dizkio: 340 etxebizitzetatik erdiak hernaniarrentzat izatea, esaterako. Gaiak eztabaida berroa sortu zuen eta pleno bukatzerako utzi zen. Etenaldi bat egin ondoren, gaia komisiara itzultzea erabaki zen. □

■ ARALARCO MUS TXAPELKETA

Carrion-Goñi txapeldun

■ Finala 4-2 irabazi zieten Arizmendi anaiei, ostegunean
■ 3garren Erroizena-Oskoz; 4garren Jon-'Greñas'.



Sarituak eta tabernariak Aralar taberna kanpoan.

LAUGARREN aldiz segidan *Aralar*reko Txapelak Donostiara joan dira, hernaniarrak 1-0 aurretik jarri baziren ere. Sariak ere ederrak izan dira: Irabazleek txapela, 200.000 Pta, 2.ak 125.000 Pta, 3.ak 60.000 Pta, 4.ak 40.000 Pta. Denek trofeoak eta oparia ere jaso zuten. Lehenengo 8 bikoteak Errioxara joango dira Bodega ezagun batera.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ☎ Taxiak: 943 550093
- ☎ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☎ DYA: 943 464622
- ☎ Autobusak: 943 556662
- ☎ Anbulatorioa: 943 557750
- ☎ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ☎ Egunez: Gomez Kale Nagusia 15 ☎ 943 554892
- ☎ Gaez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 36361774



«Jose Langile Deuna» Salesiar Ikastetxea
Escuelas salesianas «San Jos Obrero»
LH-ko Goi Mailako Institutua

Ergoien auzoa, 6
20130 Urnieta

Tel.: 943 55 17 89
Fax: 943 33 10 59

BATXILERGOAK - LH-ko ZIKLOAK

2001-2002 IKASTURTEA

BATXILERGOAK:

TEKNOLOGIA - NATUR eta OSASUN ZIENTZIAK - GIZA ZIENTZITAK

ERDI eta GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK:

- Makineria eta linea-eroanbideen instalaz. eta mantenimendu elektromekanikoa (Erdi M.)
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak. (Erdi Maila)
- Argitalpen diseinua eta produkzioa (Goi Maila).
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak (Goi Maila).
- Grafikagintzaren produkzioa (Goi Maila).
- Instalazio elektroteknikoak (Goi Maila).

GURE ESKAITZA:

- Ikastetxe hitzartua
- D eredua: Batxilergoa
- Helebiduna: Lanbide H.
- Jangela
- Baliabide eguneratuak
- Goizeko ordutegia
- Kultur, kirol eta musika ekintzak.

- ✓ PRAKTIKAK ENPRESETAN (atzerrian ere bai)
- ✓ LANGAIren Zentru laguntzailea
- ✓ GRAFIKAGINTZAN babespeko ikastetxea
- ✓ INEMeko zentru laguntzaile homologatua
- ✓ AUTOCAD eta CADDY baimendutako zentrua

Ikastetxea ikusteko aukera: Ekainaren 6an - arratsaldeko 7etan

INMACULADA IKASTETXEKO Haurtzaindegi zerbitzua



Datorren irailean irekiko da
Zuen beharrak betetzeko ordutegia izango dugu
Informazio gehiago jasotzeko,
deitu **943-550233** telefonora